Mi tarjeta de visita	Bisita-txartel bat sortzeko eta beste pertsona batzuei bidaltzeko aukera ematen du.
Número propio	Zure telefono-zenbakiak egiazta ditzakezu edo zenbaki bakoitzari izen bat esleitu.
Gestión	la agenda Telefono-aurkibideko kontaktuak administratzeko edo agendako konfigurazio lehenetsia aldatzeko aukera ematen du.
Número de servicio	Zerbitzu-hornitzaileak esleitutako zerbitzuetako markaketa-zenbakien zerrenda (SDN) ikusteko aukera ematen du, SIM txartelak onartzen badu.

Aplicaciones

Menua	Deskribapena
Reproductor de música	Musika entzuteko balio du.
Grabador de voz	Ahots-oharrak eta bestelako soinuak grabatzeko aukera ematen du.

Menua	Deskribapena
Editor de imágenes	Argazkiak zenbait edizio-tresnarekin eraldatzeko.
Bluetooth	Telefonoa beste Bluetooth gailu batzuetara haririk gabe konektatzeko.
Mundo JAVA	Java aplikazioetara eta jokoetara sartzeko.
Aplicaciones SIM	Zerbitzu-hornitzaileak eskainitako zerbitzu gehigarriak erabiltzeko.

WAPa

Informazio eguneratua eta multimedia-eduki asko (adibidez, horma-irudiak, dei-tonuak eta musika-fitxategiak) ikus ditzakezu.

Mezuak

Menua	Deskribapena
Crear mensaje nuevo	Testu-mezuak, multimedia-mezuak edo posta-mezuak sortzeko eta bidaltzeko.
Mis mensajes	Jasotako edo bidalitako mezueta edo bidali ez ziren mezueta sartzeko.

Menua	Deskribapena
Plantillas	Mezu edo pasarteen txantiloiak sortzeko eta erabiltzeko.
Borrar todo	Karpeta bateko mezu guztiak ezabatzeko.
Configuración	Mezularitza-zerbitzuak erabiltzeko zenbait aukera konfiguratzeko.
Mensajes de emergencia	Larrialdiko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera zehazteko.
Mensajes de difusión	Doikuntzak alda ditzakezu hedapen-mezuak jasotzeko.
Estado memoria	Mezu-karpeta bakoitzean erabilia dagoen memoria-kantitatea kontsultatzeko.

Nire fitxategiak

Menua	Deskribapena
Imágenes, Vídeos, Música, Sonidos, Otros archivos	Telefonoaren memorian gordetako multimedia-fitxategietara eta bestelako fitxategietara sartzeko.

Menua	Deskribapena
Tarjeta de memoria	Memoria-txartelean gordetako fitxategietara sar zaitezke. Menu hori eskuragarri izango da, soilik, telefonoan memoria-txartel bat txertatzen denean.
Estado memoria	Multimedia-elementuetarako memoria-informazioa kontsultatzeko.

Antolatzailea

Menua	Deskribapena
Alarma	Alarmak programatzeko. Alarma arrunt baterako alerta-mota dei-alerta baten konfigurazioari dagokio.
Calendario	Planifikazioen erregistro bat egiteko.
Memoria	Ohar garrantzitsuak sortzeko eta administratzeko.
Reloj mundial	Zuri dagokizun ordu-eremua konfiguratzeko eta munduko edozein lekutan zer ordu den egiaztatzeko.

Menua	Deskribapena
Kalkulagailua	Zenabait eragiketa aritmetiko egiteko balio du
Bihurgailua	Bihurketak egiteko balio du (adibidez, luzera- eta tenperatura- bihurketak).
Tenporizadorea	Telefonoak atzerako kontaketa egiteko denbora-tartea definitzeko balio du
Kronometroa	Pasatutako denbora neurtzeko balio du

Kamera

Menua	Deskribapena
Egin argazkia	Zenbait modutan argazkiak egiteko aukera ematen du. Kamerako argazkiak JPEG fitxategiak dira.
Grabatu bideoa	Kameraren pantailan azaltzen denaren bideo bat grabatzeko balio du.
Joan "Mis Fotos" atalera	Ateratako argazkien zerrendara sartzeko balio du
Joan "Mis videoclips" atalera	Grabatutako bideoen zerrendara sartzeko balio du

Konfigurazioa

Menua	Deskribapena
Fecha y hora	Telefonoan azaltzen diren data eta ordua aldatzeko.
Ajustes → Idioma	Pantailako testurako hizkuntza hautatzeko.
Ajustes → Mensaje de bienvenida	Telefonoa piztean une labur batez agertzen den ongietorriko mezua sartzeko.
Ajustes → Al deslizar	Funtzio bat erabiltzen den bitartean sarrerako dei bati erantzuteko telefonoa irekitzean eta ixtean telefonoak nola erreakzionatuko duen definitzeko.
Ajustes → Accesos di rectos	Modu inaktiboan, mezu espezifikoetarako zuzeneko sarbide gisa desplazamendu-teklak erabiltzeko.
Ajustes → Mi menú	Menuko elementu gogokoekin zure menua konfiguratu dezakezu. Menu horretan zuzenean sar zaitezke, modu inaktiboan [Gora] sakatuta.

Menua	Deskribapena
Ajustes → Método abreviado avanzado	Zuzeneko sarbide aurreratuen ezaugarriak aktibatzeke, markaketa-pantailatik aplikazioetara sartu ahal izateko.
Ajustes → Tecla Volumen	Dei bat sartzean, [▲/▼] luze sakatuta telefonoak nola erreakzionatu behar duen definitzeko.
Ajustes → Configuración de USB	Telefonoa beste gailu batera USB interfazearen bidez konektatzean erabiliko den USB modua hautatzeko.
Ajustes → Configuración extra	Telefonoa erabiltzeko doikuntza gehigarriak aldatzeko.
Ajustes → Modo fuera de línea	Telefonoa lineatik kanpo utz dezakezu; hala, sare-konexioa behar duten telefonoko funtzioak desaktibatuta egongo dira.
Pantalla Fondo	Modu inaktiboan agertzen den hondoko irudia alda dezakezu.
Pantalla → Estilo de menú principal.	Pantaila nagusirako estiloa hauta dezakezu.

Menua	Deskribapena
Pantalla → Pantalla de texto	Pantailaren konfigurazioa alda dezakezu modu inaktiboko pantailan agertzen den testurako.
Pantalla Temas	Menuen modurako kolore-konbinazioa hauta dezakezu.
Pantalla → Brillo	Pantailaren distira argitasun-egoeraren arabera doi dezakezu.
Pantalla → Pantalla de marcación	Markaketa bitartean pantailak izango dituen doikuntzak pertsonaliza ditzakezu.
Pantalla → Calendario	Hilari dagokion egutegia ikus dezakezu pantaila inaktiboan.
Pantalla → Mostrar ID de llamante	Dei galduen jakinarazpenak deitu zuten azken pertsoneri buruzko informazioarekin bistartzeko konfiguratu daiteke telefonoa.
Melodías → Llamada entrante	Sarrerako deien doinua aldatzeko.
Melodías → Tono de teclado	Telefonoak tekla bat sakatzean egingo duen soinua hautatzeko.
Melodías → Tono del mensaje	Mezu-motaren araberako sarrerako mezuen doinua aldatzeko.

Menua	Deskribapena
Melodías → Tono de encendido/ apagado	Telefonoak piztean edo itzaltzean egingo duen soinua hautatzeko.
Melodías → Tono tapa	Telefonoak irekitzean edo ixtean egingo duen tonua hautatzeko.
Melodías → Modo Silencio	Telefonoa Isilik moduan dagoenean gertaera jakin bat jakinarazteko modua definitzeko.
Melodías → Tonos extra	Telefonoaren tonuak pertsonalizatzeko.
Configuración de iluminación → Tiempo de retroiluminación	Telefonoa erabiltzen ez denean hondoko edo pantailako argia zenbat denboraz egongo den piztuta hautatzeko.
Configuración de iluminación → Iluminación del teclado	Telefonoak teklatuaren argia nola kontrolatuko duen definitzeko.
Servicios de red → Desvío de llamadas	Sarrerako deiak zehaztutako telefono-zenbakira desbideratzeko.
Servicios de red → Llamada restringida	Deiak murrizteko.

Menua	Deskribapena
Servicios de red → Llamada en espera	Telefonoa konfiguratzeko dei batean besteren bat zurekin komunikatu nahian dabilela jakinarazteko.
Servicios de red → Selección de red	Hornitzailearen estaldura-eremutik kanpo zaudenean zein sare erabili nahi duzun hauta dezakezu eskuz edo automatikoki.
Servicios de red → Identificación del llamante	Deitzen ari zaren pertsonak zure zenbakia ikus ez dezan konfiguratzeko.
Servicios de red → Servidor de correo de voz	Ahots-postontziko zerbitzariaren zenbakia gordetzeko eta mezuetera sartzeko.
Servicios de red → Selección de banda	Atzerrira joatean banda egoki batera aldatzeko.
Seguridad → Comprobación PIN	SIM txartela baimenik gabe erabil ez dezaten PINa aktibatzeko.
Seguridad → Cambiar PIN	PINa aldatzeko.
Seguridad → Bloqueo teléfono	Telefonoa baimenik gabe erabil ez dezaten pasahitza aktibatzeko.

Menua	Deskribapena
Seguridad → Cambiar contraseña	Telefonoaren pasahitza aldatzeko.
Seguridad → Privacidad	Dei-erregistroetara, aurkibidera, mezueta edo fitxategietara sartzeko.
Seguridad → Bloqueo SIM	Telefonoak uneko SIM txartelarekin bakarrik funtzionatuko du, SIM txartela blokeatzeko pasahitza esleituta.
Seguridad Modo FDN	Telefono-zenbaki jakin batzuetara bakarrik deitu ahal izateko telefonoa mugatzeko (SIM txartelak funtzio hori onartzen badu).
Seguridad → Cambiar PIN2	PIN2a aldatzeko aukera ematen du (SIM txartelak funtzio hori onartzen badu).
Seguridad → Seguimiento móvil	Telefonoa beste SIM txartel batekin erabiltzen saiatzen badira, zure familiari edo lagunei aurrez zehaztutako segimendu-mezu bat bidal dezan konfiguratzeko.

Menua	Deskribapena
Estado memoria	Telefono-memoriako edo memoria-txarteleko elementu guztien memoria-informazioa kontrolatzeko.
Restablecer valores	Aldatutako telefonoaren balioak leheneratzeko.
Gestión de claves	DRM sistemek blokeatutako multimedia-fitxategiak aktibatuzeko hartutako lizentzia-gakoak administratzeko.
Configuración de VOD	Bideo-transferentziako zerbitzari batera sartzean erabiliko den konexio-profila hautatzeko.

SAR-en ziurtagiriari buruzko informazioa

Telefono honek irrati-uhinekiko esposizioaren inguruko Europako Batasunaren (EB) eskakizunak betetzen ditu. Telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Europako Batasuneko Batzordeak gomendaturiko irrati-maiztasunaren energiarekiko (IM) esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatu eta fabrikatuta dago. Muga horiek direktiba zehatz batzuen zati dira eta herritarrentzako baimenduriko RFren energia-mailak ezartzen dituzte. Erakunde zientifiko independenteek garatu dituzte direktiba horiek, azterlan zientifikoek aldizkako ebaluazioak oinarri hartuta. Mugek segurtasun-tarte handia dute, pertsona guztien segurtasuna bermatzeko, pertsonak duten adina edo osasun-egoera kontuan hartu gabe.

Telefono mugikorretarako esposizio estandarra neurtzeko indizea SAR da (Specific Absorption Rate, Absortzio Espezifikokoaren Tasa). Europako Batzordeak gomendaturiko SAR muga $2,0 \text{ W/kg}^*$ da.

Telefono-modelo honetarako gehieneko SAR balioa $0,461 \text{ W/kg}$ da.

SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, telefonoak, berriz, maila ziurtatu handiengan transmititzen du probaturiko maiztasun-banda guztietan. SAR potentzia-maila ziurtatu handienarekin zehazten den arren, telefonoaren funtzionamenduaren SAR maila errealak gehieneko balioaren azpitik egon ohi da.

-
1. Jendeak erabiltzen dituen telefono mugikorretarako SAR muga $2,0 \text{ watt/kilogramo (W/kg)}$ da batez beste, giza ehunaren hamar gramoko. Mugak segurtasun-tarte nabarmena du, jendearentzat babes gehigarria ezartzen duena eta neurrien edozein aldaketa kontuan hartzen duena. SAR balioak estatu bakoitzeko informazio-eskakizunen eta sare-bandaren araberakoak izaten dira.

Telefonoa hainbat potentzia-mailatan funtzionatzeko eta sarera konektatzeko behar den potentzia bakarrik erabiltzeko diseinatuta dagoelako gertatzen da hori. Normalean, telefonoa mugikorreko antena batetik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta txikiagoa da energia-emisioa.

Telefono-modelo berri bat salgai jarri baino lehen, telekomunikazioetako ekipu terminalei buruzko Europako direktiba (R&TTE) betetzen duela frogatu behar da. Direktiba horretako funtsezko baldintzetako bat da osasunaren babesa eta erabiltzailearen eta beste edozeinen segurtasuna.

Bateriak erabiltzean kontuan hartu beharreko neurriak

- Ez erabili modu batean ala bestean kaltetua dagoen kargagailurik, ezta bateriarik ere.
- Erabili bateria diseinatu zuten helbururako bakarrik.
- Telefonoa sarearen oinarri-estaziotik hurbil erabiltzen baduzu, energia gutxiago erabiltzen du; sare mugikorreko seinalearen intentsitateak eta sare-operadoreak ezarritako parametroek eragin handia dute deiak egiteko eta jasotzeko moduaren iraupen-denboran.
- Bateria kargatzeko denborak gainerako bateriaren eta erabilitako bateria-eta kargagailu-moten araberakoak dira. Bateria ehunka bider karga eta deskarga daiteke, baina ahulduz joango da pixkanaka-pixkanaka. Funtzionamendu-denbora (deiak egiteko eta jasotzeko egoeran dagoen denbora) ohikoa baino askoz txikiagoa denean, bateria berria erosi beharko da.
- Erabiltzen ez bada, guztiz kargatuta dagoen bateria deskargatuz joango da, denborak aurrera egin ahala.
- Erabili Samsung-ek baimendutako bateriak bakarrik eta kargatu berriz Samsung-ek baimendutako kargagailuen bidez. Kargagailua erabiltzen ez denean, deskonektatu elikatze-iturritik. Ez utzi bateria kargagailu bati konektatuta astebete baino gehiago, gainkargak haren balio-bizitza labur baitezake.
- Muturreko tenperaturek kalte egin diezaiokete bateriari. Egoera batzuetan beharrezkoa izan daiteke hoztea edo berotzea.

- Ez utzi bateria oso leku beroetan edo hotzetan, udan edo neguan autoaren barruan adibidez, bateriaren ahalmena eta bizitza erabilgarria murriztu egingo baitira. Saiatu beti bateria giro-tenperaturan izaten. Bateria beroa edo hotza badago, agian telefonoak ez du funtzionatuko denboraldi batean, nahiz eta bateria guztiz kargatuta egon. Li-ioi bateriek kalteak jasaten dituzte bereziki 0 °C-tik (32 °F) beherako tenperaturetan egonez gero.
- Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Ustekabeko zirkuitulaburra sor daiteke objektu metaliko batek (txanpon bat, klip bat edo boligrafo bat) bateriaren + eta - borneen (baterian dauden banda metalikoak) arteko konexio zuzena eragiten duenean, adibidez, ordezeko bateria bat poltsiko edo poltsa batean daramazunean. Borneen zirkuitulaburrak bateria edo zirkuitulaburra sortu duen objektua kalte dezake.
- Bete herriko araudia erabilitako bateriak botatzeko garaian. Birziklatu beti. Ez bota bateriarik sutara.

Errepideko segurtasuna

Haririk gabeko edozein telefonok ematen dizu edozein tokitan eta edozein unetan beste norbaitekin ahotsez komunikatzeko aukera. Hala ere, haririk gabeko telefonoen bidezko komunikazioaren abantailek arduratsu jokatzera behartzen gaituzte, eta hori ez dugu inoiz ahaztu behar erabiltzaile guztiok.

Gidatzen ari zarenean, lehenengo ardura gidatzea da. Telefono mugikorra autoan erabiltzen duzunean, ziurtatu eremu edo herrialde horretako araudiak betetzen dituzula.

Ingurune operatiboa

Gogoratu, edozein lekutan zaudela ere, indarrean dagoen araudi berezia bete behar duzula eta deskonektatu zure telefonoa erabiltzea debekatuta dagoenean edo interferentziak edo arriskua ekar ditzakeenean.

Telefonoa edo edozein osagarri beste gailu batera konektatzen duzunean, irakurri erabiltzailearen eskuliburua segurtasuneko jarraibide zehatzak izateko. Ez konektatu bateragarria ez den produkturik.

Irrati transmisio mugikorreko beste ekipo batzuekin gertatzen den bezala, ekipoak behar bezala funtzionatzeko eta erabiltzailearen segurtasunerako, ekipoak funtzionatzen duen posizio normalean bakarrik erabiltzea aholkatzen da (hau da, belarritik gertu, antena sorbaldatik gora begira dagoela).

Gailu elektronikoak

Ekipo elektroniko moderno gehienek irradi-maiztasuneko (IM) seinaleen aurkako babesa dute. Hala ere, ekipo elektroniko batzuek ez dute horrelako babesik. Galdetu fabrikatzaileari beste aukeren inguruan.

Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 15 cm-ko distantzia izatea gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentziak sortzea galarazteko. Gomendio horiek ikertzaile independenteenak eta Wireless Technology Research (Haririk gabeko teknologiarri buruzko ikerketa) erakundearenak dira. Interferentziaren bat sortzen ari dela uste baduzu, itzali berehala telefonoa.

Audiofonoak

Telefono mugikor batzuek interferentziak sor ditzakete audiofono-mota batzuekin. Horrelako interferentziarik sortzen bada, galdetu audiofonoaren fabrikatzaileari beste aukerarik dagoen.

Beste gailu mediko batzuk

Beste gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, jar zaitez gailu horren fabrikatzailearekin harremanetan kanpoko IM energiaren kontra babestuta dagoen jakiteko. Zure medikuak lagun diezazuke informazio hori eskuratzen. Itzali telefonoa osasun-laguntzako instalazioetan, eremu horietako karteletan hori adierazten denean.

Ibilgailuak

Behar bezala instalatu ez diren edo behar bezala babestuta ez dauden motor-ibilgailuen sistema elektronikoei eragin diezaiakete IM seinaleek. Galdetu zure ibilgailuaren fabrikatzaileari edo haren ordezkariari. Halaber, ibilgailuari erantsi zaion beste edozein ekiporen inguruan kontsulta egin beharko diozu.

Aholkua duten instalazioak

Itzali telefonoa hori egiteko eskatzen den instalazio guztietan.

Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Itzali telefonoa lehergaiak egon daitezkeen inguruetan eta bete aipatutako seinale edo jarraibide guztiak. Eredu horretan txinpartaren bat sortzen bada, leherketaren bat edo suteraren bat eragin dezake, eta lesioak edo heriotza eragin norbaiti. Komeni da erabiltzaileak gasolina-zerbitzuguneetan telefonoa itzaltzea. Halaber, gogorarazten dizugu erregai-tangetan (erregaiak biltegitratzeko eta banatzeko eremuak), instalazio kimikoetan edo leherketan abian daudenean irrati-ekipoak erabiltzeari buruzko murrizketak betetzeko beharra.

Lehergaiak egon daitezkeen inguruak argi identifikatuta egoten dira normalean, baina ez beti.

Horien barnean sartzen dira, esate baterako, itsasontzietako beheko kubiarta, produktu kimikoak transferitzeko edo biltegitratzeko instalazioak, petrolio-gas likidotua (propanoa edo butanoa adibidez) erabiltzen duten ibilgailuak, airean produktu kimikoak edo partikulak (adibidez, pikorrak, hautsa edo metal-hautsa) dauden eremuak eta ibilgailuaren motorra itzaltzeko aholkatzen duten beste hainbat leku.

Larrialdi-deiak

Telefono honek, gainerako telefono mugikorrek bezala, irrati-seinaleak, sare mugikorrek eta lurrekoak eta erabiltzaileak programatutako funtzioak, konexioa baldintza guztietan bermatu ezin dutenak, erabiltzen ditu. Beraz, ez duzu inoiz telefono mugikor batez fidatu behar funtsezko komunikazioak ezartzeko (adibidez, medikuntza-larrialdiak).

Gogoratu, deiak egin edo jasotzeko, telefonoak piztuta egon behar duela eta seinale mugikorraren intentsitate egokia duten area baten barruan. Larrialdi-deiak beharbada ez dira gauzatuko telefonia mugikorreko sare guztietan edo sare-zerbitzu edota telefono-aukera batzuk erabilgarri daudenean. Zerbitzuen hornitzaileari galdetu.

Larrialdi-dei bat egiteko, egin hauxe.

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu.
2. Markatu larrialdi-zenbakia. Larrialdietako zenbakiak aldatu egiten dira kokapenaren arabera.
3. Sakatu [↩].

Hainbat funtzio erabiltzen ari bazara (deien murrizketa adibidez), baliteke larrialdi-deia egin aurretik desaktibatu behar izatea. Konsultatu dokumentazioa eta jarri harremanetan mugikorraren tokian tokiko zerbitzu-hornitzailearekin.

Segurtasuneko informazio garrantzitsu gehiago

- Langile prestatuek bakarrik instalatu edo konpondu behar dute ibilgailuko telefonoa. Akastun instalazioa edo konponketa arriskutsua izan daiteke eta unitateari aplikatu dakiokeen bermea baliogabe dezake.
- Egiaztatu noizean behin zure ibilgailuko telefonia mugikorraren ekipoak zuzen jarrita daudela eta ondo dabiltzala.
- Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitekeen materialik, telefonoa eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.
- Airbaga duten ibilgailuetan, gogoratu sistema indar handiz irekitzen dela. Hori dela eta, ez jarri objekturik (haririk gabeko ekipoak edo eramangarriak barne) airbaga dagoen tokian edo airbaga zabaltzen den eremuan. Ibilgailuetarako haririk gabeko ekipoak behar bezala instalatzen ez badira eta airbaga ireki egiten bada, lesio larriak sor daitezke.
- Deskonektatu telefono mugikorra hegazkinean sartu aurretik. Telefono mugikorrak hegazkinetan erabiltzea legez kontrakoa da, eta arriskutsua izan daiteke hegazkina behar bezala ibiltzeko.
- Jarraibide hauek betetzen ez badira, arau-hausleari telefono mugikorreko zerbitzuak kendu edo uka dakizkioke edota auzi-eskea egin, edo bi gauzak batera.

Zainketa eta mantentze-lana

Zure telefonoaren diseinua eta fabrikazioa kalitate gorenekoak dira, eta arretaz erabili behar da. Gomendio hauek lagunduko dizute bermean ezarritako betebeharrak betetzen eta produktu honetaz urte askoan gozaten.

- Ez utzi telefonoa eta haren pieza eta osagarriak haurren eta etxeko animalien eskueran. Ustekabean, honda ditzakete edo pieza txikiak eztarrian trebatuta gera daitezke.
- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta mineralak dituzten likidoek herdoildu egiten dituzte zirkuitu elektronikoak.
- Ez ukitu telefonoa eskuak bustita dituzula. Izan ere, deskarga elektriko bat gerta daiteke edo telefonoa hondatu egin daiteke.
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan, osagaiak hondatu egin baitaitezke.
- Ez gorde telefonoa leku oso beroetan.
Tenperatura altuek gailu elektronikoen bizitza erabilgarria murriz dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko desitxuratu edo desegin ditzakete.
- Ez gorde telefonoa leku oso hotzetan. Telefonoa berotzen denean (tenperatura arruntera itzultzean) telefonoaren barruan hezetasuna sor liteke eta horrek zirkuitu elektronikoak honda ditzake.
- Ez utzi erortzen eta ez jo telefonoa. Zakar erabiltzen bada, barruko zirkuitu elektronikoak kaltetu daitezke.
- Telefonoa garbitzeko, ez erabili produktu kimiko gogorrik, ez garbitzeko disolbatzailerik, ez eta garbigarri bortitzik ere. Garbitu zapi leun batekin.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak trabak sor ditzake gailuaren zati mugikorretan, eta ongi funtzionatzea eragotzi.
- Ez utzi telefonoa berotzen diren gailuen gainean, mikrouhin-labea, berogailua edo erradiadorea adibidez. Telefonoa lehertu egin daiteke gehiegi berotzen bada.

- Telefonoa edo bateria busti egiten bada, urarekin kontaktuan jartzeagatik sortutako kalteak adierazten dituen etiketaren kolorea aldatuko da. Kasu horretan, fabrikatzailearen bermean ez da sartzen telefonoa konpontzea, nahiz eta berme hori iraungi ez.
- Telefonoak flasha edo argia badu, ez erabili pertsonen eta animalien begietatik gertu. Osagai horiek begitako lesioak sor ditzakete.
- Hornitzaileak emandako antena edo baimendutako ordezkioak bakarrik erabili. Baimenik gabeko antenek edo aldatutako osagarriek hondatu egin dezakete telefonoa, edo irrati-gailuei dagozkien arauak ez bete.
- Telefonoa, bateria, kargagailua edo telefonoaren edozein osagarri gaizki badabil, eraman hurbilen duzun zerbitzu gaitura. Zentro horretako langileek lagunduko dizute, eta, beharrezkoa bada, haiek konponduko dute telefonoa.

Adostasun-deklarazioa (R&TTE)

Produktu honentzat:

GSM850/GSM900/GSM1800/GSM1900 Bluetooth-arekin
Telefono mugikor eramangarria

(Produktuaren deskribapena)

SGH-E390

(Modeloaren izena)

Non egina:

- Samsung Electronics Co., Ltd, 94-1, Imsoo-Dong, Gumi City,
Kyung-Buk, Korea, 730-350

(Lantegiaren izena, helbidea)

Horri egiten dio erreferentzia deklarazio honek, eta bat dator estandar hauekin eta/edo beste arautegi batzuekin.

Segurtasuna:	: EN 60950-1:2001
EMC	: EN 301489-01 vl.4.1 (08-2002) EN 301489-07 vl.2.1 (08-2002) EN 301489-17 vl.2.1 (08-2002)
SAR	: EN 50360:2001 EN 50361:2001
Sarea:	EN 301511 V9.0.2 (03-2003) EN 300 328 vl.6.1 (11-2004)

Honen bidez deklaritzen da [oinarrizko irratirak probak egin direla eta] aurrez aipatutako produktuak betetzen dituela 1999/5/EE Direktibaren oinarritzko eskakizunak.

1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan eta [IV.] eranskinean aipatutako adostasun-balorazioaren prozedura jakinarazitako erakunde hauen parte-hartzearekin egin da:

**BABT, Balfour House, Churchfield Road,
Walton-on-Thames, Surrey, KT12 2TD, UK
Identifikazio-marka: 0168**

CE 0168

Dokumentazio teknikoa hemen dago:

Samsung Electronics QA Lab.

eta aurrez eskatuta emango da.

(EBn duen ordezkaria)

Samsung Electronics Euro QA Lab.
Blackbushe Business Park, Saxony Way,
Yateley, Hampshire, GU46 6GG, UK
2006.10. 26



Yong-Sang Park | S. Manager

(Igorpen-lekua eta -data)


(pertsona baimendunaren izena eta sinadura)


* Hori ez da Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren Zentroa. Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren helbidea edo telefono-zenbakia jakin nahi baduzu, begiratu berme-txartelean edo galdetu telefonoa erosi zenuen dendan.






SGH-E390


Erabiltzailearen eskuliburua



































































CE0168

J. S. Polz

- * Baliteke eskuliburu honetan aipatzen diren deskribapenek zure telefonoak aplikaziorik ez izatea, zerbitzu-hornitzailearen, herrialdearen edo instalatutako softwarearen arabera.
- * Telefonoaren irudiak eta osagarriak aldatu egin daitezke herrialdearen arabera.

SAMSUNG ELECTRONICS



Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

World Wide Web
<http://www.samsungmobile.com>

Code No.:GH68-xxxxxA
Euskara. 08/2007. 1.0 berr.

SGH-E570 Erabiltzailearen eskuliburua



Segurtasun-neurri garrantzitsuak

- Irakurri jarraibide hauek telefono mugikorra erabiltzen hasi aurretik. Ez betetzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke.

Copyright-aren informazioa

- Bluetooth SIG, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan.
- Sun Microsystems, Inc.-en marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da Java™.

Segurtasuna errepidean denbora guztian

Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zaren bitartean; lehenengo autoa gelditu.

Deskonektatu telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan

Ez erabili telefonoa gasolindegietan (zerbitzugunea), ez eta erregai edo produktu kimikoetatik gertu ere.

Deskonektatu telefonoa hegazkinez zoazenean

Telefono mugikorrek interferentziak sor ditzakete. Hegazkinetan telefono mugikorrek erabiltzea legez kontrakoa izateaz gain, arriskutsua ere bada.

Deskonektatu telefonoa ekipo medikoetatik gertu zaudenean

Ospitaleetan edo osasun-laguntzako instalazioetan, kanpoko IMen energiarekiko sentikorrek diren ekipoak erabiltzen dituzten batzuetan. Bete indarrean dauden araudiak edo legeak.

Interferentziak

Telefono mugikor guztiek jaso ditzakete funtzionamenduari eragin diezaioketen interferentziak.